

Ordizian, 2017ko maiatzaren 22an, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Jon Ander Caballero.	EH BILDU
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2017ko maiatzaren 8ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 2.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
 - 2017ko Inbertsioak
- 3.- Galde-eskeak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 17:10



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2017ko maiatzaren 8ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2017ko apirilaren 24ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Sukia andreak dio, 4. puntuan, galde-eskaeretan, Alkateari galderak egin zizkiola Enirio-Aralar Mankomunitatearen inguruan, Alkateak erantzun ziola baina erantzuna ez dela aktan azaltzen.

Zuzenketa egiten da: “Alkate jaunak erantzun dio orain arte bezala bere funtzioak betetzen jarraituko duela.”

Zuzenketa eginda aho batez onartu da akta.



2.- 6.000 €tik gorako fakturak

19 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 33.192,48 €

Fakturei oniritzia eman zaie.

3.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- 6000 €tik beherako fakturak.

18 eta 20 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 49.351,66 €

Fakturei oniritzia eman zaie.

.-Floreaga

Alkate jaunak adierazi du San Joan eremuan BOEko etxebizitzak egiteko proiektu bat onartu zela aspaldi. Gaia aspaldikoa da.

Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzarekin ahozko akordio batera heldu dira etxebizitzak alokairuan izan daitezen, horietako batzuk alokairu sozialean. Etxebizitza kopurua hitzarmenean aipaturikoa izango da, 30-36 etxebizitza bitartean izango dira.

Akordioa hitzarmenean agertuko da.

.- ADIF: geltokia

Alkate jaunak adierazi du ADIFek, bere garaian, geltokiaren irisgarritasuna hobetzeko proiektua egin zuela, Udala asebetetzen ez zuena. Gaur egun, helburu berberarekin, beste proiektu bat egiten ari dira eta hau ere aztertu beharko dela dio.

.- Alkate jaunak beste bi proiekturen berri eman du, Udala tartean da:

- Prozedura eskuliburua
- Antolaketa hobetzeko proiektuan sartutako teknikariena. Hamabostean behin 4 orduko jardunaldiak. 10 jardunaldi.

Sukia andreak proiektu bakoitzaren kostua zein den galdetu du.

Alkate jaunak erantzun dio: 1.- Prozedura eskuliburua – 500 €

2.- Antolaketa hobekuntza – 7.000 €

.- Basque Culinary Center

Alkate jaunak eta Iturrioz jaunak Basque Culinary Centerrekin izandako bileraren berri eman dute.

Eguna jarri da, ekainak 15, eguerdian Oiangurenen, alderdi politiko guztiak Basque Culinary Centerreko arduradunekin elkartzeko eta adostasun batera heltzeko.

.- Alkate jaunak energia eraginkortasunaren inguruan AIZKORREekin izandako bileraren berri eman du.

Sukia andreak, berandu izan arren egin izana eskertu du.

.....

4.- Galde-eskeak.

Ez daude.

.....

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta hori egiaztatzen dut.